

**“Esango nuke
saiakera literario oso
pertsonala dela,
kutsu poetikoduna”**

Ainhoa Urien Telletxe
Idazlea • 24



**55. Durangoko Azokako nobedadeak denda
digitalean baino ezingo dira erosi**

Durango • Durangoko Azoka abenduaren 4tik 8ra egingo da aurten. Salerosketako gune bakarra webguneko denda birtuala izango da. Egitarauak ere aldaketa nabarmenak edukiko ditu. Landako Gunea eta Plateruena izango dira gune biak. • 25



**Aurten
'Jairik ez'
Durangon**

Egoeraren arabera, udalak herriko sarrerak zarratzeko erabakia hartu dezake. Durangok 11 sarrera ditu errepidez, eta udalak horietariko 9 zarratuko lituzke beharrezkoa baltz. • 2-3

**Atxiloketaren
ondoren, epaileak
kargupean aske
utzi du Imanol Jaio**

Abadiño • Guardia Zibilak Imanol Jaio abadiñarra atxilotu zuen astelehenean, "helburu terroristekin lehergaiak edukitzea" egotzita. Epailearen aurrean deklaratu zuen eguaztenean, eta egun hartan bertan utzi zuen aske, kargupean. • 8



Urriaren 1etik 31ra arte
5.URTEURRENA

Opari bereziak

SCHMIDT

Murueta Auzoa z/g
Eroski Merkatal Zentroa
48220 Abadiño
www.homedesign.schmidt

SUKALDEAK - ETXEA - BAINUGELAK



Goienkaleko giroa, iazko San Fausto jaietan.



Pantxike Geu Be-ko kideek eta trikitilariak lagunduta ailegatu zen, iaz, txosnagunera.



Udal agintariak protokoloaren berri eman zuten eguaztenean.

Aurten elkar zaintza, hurrengo batean jaia

Jairik ez egotea "mingarria" den arren, Durangoko Udalak, Jai Batzordeak eta Txosna Batzordeak arduraz jokatzeko deia egin diete durangarrei eta inguruko herritarrei

DURANGO • E.H / J.G. / A.M.

"Aurten ez da jairik egitea tokatzen". Sei berba sinple dira, baina ez dute dudatarako tarterik uzten. Ima Garrastatxu alkateak modu argian errepikatu ditu asteen. Errime. Behin eta berriro. Eta badaezpada, baten batek oraindino festarako unea dela uste badu. "Data seinala-tu hauetan durangarren laguntza behar dugu orain arte egindako lana ez hondatzeko; gure familien eta auzokideen osasun eta ekonomia-aren etorkizuna jokoan dago", adierazi du asteen.

Durangoko Udalak ekainean hartu zuen jairik ez ospatzeko erabakia.

Durangoko Udalak herria itxiko du osasun publikoa arriskuan ipintzen duten egoerak ikusten baditu

Euskal Herriko beste hainbat tokitan birusak izandako agerraldiak kontuan hartuta hartu zuten erabakia. Ordutik hona egin du euria, baina koronabirusak ez du alde egin eta agerraldiek bere horretan jarraitzen dute, herri batean ez bada, bestean. Baina erabaki hori ez da bakarrik ailegatu. Jai Batzordeak, Txosna Batzordeak eta Alde Zaharreko tabernarien elkarteak indarrak batu dituzte orduan hartutako erabaki hura data hauetan bete dadin. Alde horretatik, eragile guztiek izandako konpromisoa goretsi du Garrastatxuk: "Eskerrak eman gura dizkiet Jai Batzordeko kide guztiei eta elkarte denei. Erabaki mingarria da, eta, hala ere, lanean jarraitu dute, jairik egongo ez dela kontziente, hori horrela dela betetzeko".

Segurtasun protokoloa martitzen honetara arte egongo da aktibo; baina hurrengo asteburuan ere

Protokoloa, prest

Jairik egongo ez dela jakina den arren, udalak protokolo berezi bat diseinatu du balizko jende pilaketak gertatuko balira. Ez dute Durango ixtea baztertzen, osasun publikoa bermatzeko hala eskatuko balu. "Durango itxiko dugu

osasun publikoa arriskuan dagoela ikusten badugu", esan du asteen Julian Rios alkateordeak. Durangok 11 sarrera ditu errepidez, eta udalak horietariko 9 zarratuko lituzke beharrezkoa balitz. Erabaki hori hartzeko, nahikoa litzateke lau egoera hipotetiko hauetariko bat betetzea: Bat: garraio publikoan jende asko heltzen ari dela ikustea. Bi: herriko hainbat puntutan jende pilaketak egotea. Hiru: ohi baino bisitari eta trafiko gehiago dagoela sumatzea. Aparkalekuak betetzen ari direla antzematea. Eta lau: kale-zurruta edo botiloia egiteko planen berri jakitea.

Protokoloak beste hainbat neurri barnebiltzen ditu. Ertzaintzak Durangoko kanpoaldeak patruilatuko ditu kale-zurrutak ekiditeko. Eta udaltzainek erdigunea kontrolatuko dute osasun neurriak betetzen direla ziurtatzeko. Udalak 450 kartel informatibo banatuko ditu ostalaritzan, osasun neurriak gogorarazteko. Bestalde, Bizkaibusek ez du geldialdirik egingo Durangon 22:00etatik aurrera.

"Etorriko dira sasoi hobek eta berriro ere txosnagunean elkartuko garelakoan gaude"

Protokoloa bariku honetatik datorren martitzenera arte eta hurrengo asteburuko barikuan eta zapatuan egongo da indarrean.

Laster arte bat

Txosna Batzordeak egitarau bat eskaintzeko asmoa zuen, baina osasun krisialdiak hala behartuta, ezinezkoa izan zaio "egitaraua garatzeko beharrezkoa den txosnagune seguru eta osasuntsu bat antolatzea". Baina etsipenean jausi barik, herri mugimenduko kideak aurrera begira ipini dira. "Eskerrak eman gura dizkiegu egitarau honetan parte hartzeko prest agertu diren musika talde zein kultur gileei. Zailtasunak zailtasun, aurrerantzean ere bidelagun izango gaituzue", esan dute. "Etorriko dira sasoi hobek eta berriro ere txosnagunean elkartuko garelakoan gaude", esan du Txosna Batzordeak.



MILA
EIZMENDI
Tabernaria



RAI
BIKANDI
Jai Batzordeko kidea



MAIALEN
BILDOSOLA
Txosna Batzordeko kidea

“Egun hauetan denok ipini behar dugu gure aldetik, dena ondo irten dadin”

Durango Alde Zaharreko tabernarien elkarteko presidentea da Mila Eizmendi. Mesoi Barria tabernako jabea da. Arduratuta daude 'jairik ez' egunotan gertatu daitekeenagaz.

Badatuz San Faustoak jairik egongo ez den arren. Arduratuta zaudete?

Bai, oso arduratuta gaude. Gustatuko litzaidake zubi honetan oso eguraldi txarra egitea, tximistak eta trumoiak. Zubi luzea izango denez, posible da jendea kanpora joatea. Denon esku dago arduraz jokatzeko, eta horregaitik espero dut jendetzarik ez egotea.

Udalagaz lanketa bat egin duzue. Bizi duzuen egoera eta udalaren protokoloa izan dira langaiak. Tabernariak gustura geratu zarete?

Batzar bi egin ditugu udalagaz eta pozik geratu gara. Hala ere, egunotan txarto-ulerturen bat egon da.

Bezeroek ulertzen dute egoera zein den?

Ulertzen dute, baina arau guztiak ehuneko ehunetan betetzea ez da erraza. Gu ez gara poliziak eta ez dugu izan gura ere. Horregaitik, egun hauetan denok ipini behar dugu gure aldetik, dena ondo irten dadin. Egunotan ondo lan egin gura dugu, jendetzarik barik.

Tabernen biziraupenean Durango jaiak eta Azoka garrantzitsuak dira urtea positiboan amaitzeko. Orain zer egoeratan zaudete?

Durango ostalaritzan ekimen bi horiek salbatzen zuten urtea orain arte. Egoera honetan, urtea galdutzat ematen dugu.

“Parean dugun egoera zein den kontuan hartuta, ez dago erabaki gogorrik”

Rai Bikandik hamar bat urte daramatza Jai Batzordean buru-belarri sartuta. Jaia gogotik egin du, berdin antolakuntzan edo gozamen hutsean ibilita. Zentzuzkoa deritzo jairik ez egiteari.

Jaia egin gura eta ezin. Aurten jairik egingo ez dela barneratzea gogorra egin da?

Parean daukagun egoera zein den kontuan hartuta, ez dago erabaki gogorrik. Hasieran zalantzak zeuden. Jaiak egin ala ez egin. Baina kontuan hartu azken egun hauetan hainbat kutsatze berri egon direla Durango, eta jaietako egunak ailegatu ahala goranzko joera moduko bat egon dela.

Herritarrei arduraz jokatzeko deia egin diezue.

Bai. Begira zer gertatu zen Gernikan. Begira zer gertatu den Gipuzkoako beste hainbat herritan. Ardura poliziarren edo errepresioaren esku utzi beharrean, herritarren esku uztea hobe delakoan nago. Arduraz eta elkartasunez jokatzeko dagokigu. Ostalariekin batez ere. Tabernetan agerraldi bat izango ote duten beldurra dute batetik. Eta isunak jasoko duten beldurra bestetik.

Zer esango zenioke, tamaina txikian bada ere jaitxoren bat egitea pentsatzen ari denari?

Prebentzioagaitik bada ere, ez dezala egin. Festa egiteko, gero ere egongo da nahikoa denbora. Jai txiki baten beste jai batera deitu ohi du, eta orain sei jaizale baten diren tokian 40 batek amaitu dezakete. Ez egin. Eta, egitekotan, osasun neurriak ezinbestean bete.

“Erabakiak errespetatzea eskatzen dugu, herriarengan pentsatuta hartu dira eta”

Prestaturiko egitaraua gune "seguru eta osasuntsu" batean garatzeko zailtasunen ondorioz, Txosna Batzordeak bertan behar utzi du bere egitaraua.

Zelakoa izan da erabakia hartzeko prozesua?

Ekainera arte, betiko antzera egon ginen egitaraua prestatzeko lanetan, etxean konfinatuta geunden arren. Egitarau bat prestatzen ari ginen, jaiak normalak izango balira legez, txosnak egongo balira legez. Udalak San Faustoak bertan behera uztea erabaki zuenean, egitarau alternatibo bati eustea erabaki genuen, txosnagunerik barik, udalak utzitako espazio batean. Gero ikusi genuen ekintza batzuetan gatxa izango zela osasun eta segurtasun neurriak bermatzeko. Hasieratik egitarau osoari eustea edo ezer ez egitea zen gure asmoa. Eta egoera horretara helduta, egitaraua bertan behera uzteko erabakia hartzea oso gatz egin zitzaigun.

Txosnarik ez egoteak zer suposatuko dizue Txosna Batzordea osatzen duzuen elkartei?

Txosnak diru iturri garrantzitsua dira herri mugimenduko elkarteentzat. Beraz, urtero egon ohi den diru sarrera bat ez da egongo, eta horrek zailtasunak ekarriko dizkigu eragileoi.

Baduzu mezurik durangarrentzat?

Ez dakigu datorren urtean jairik egongo den ala ez, baina aurten elkar zaintzea dagokigu. Erabakiak errespetatzea eskatzen dugu, herriarengan pentsatuta hartu dira eta.

GARAI

**ONDARE
JARDUNALDIAK**

"Ondarea eta Hezkuntza" lelopean urrian zehar Garain izango den egitaraua.

Izen ematea:
ejardunaldiak@gmail.com
673 005 981



Garai



**ONDARE
JARDUNALDIAK**

2020

URRIAK 10
URRIAK 18
URRIAK 25

ZAHARBERRITZE TAILERRA
URRIAK 10, 12:00etan KULTUR ETXEAN

Ane Barreinkuaren eskutik liburu eta margolanen zaharberritzea bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dugu.

**SENDABELARREN
IBILBIDEA**

URRIAK 18, 12:00etan UDALETXEAN

Gure arbasoek naturari buruz zuten ezagutza berreskuratuz inguruko belarrak bereizten ikasiko dugu.

**SENDABELARREN
TAILERRA**

URRIAK 25, 12:00etan KULTUR ETXEAN

Sendabelarren erabilera eta prestaketari buruzko tailerra izango da. Ukendua nola prestatu ikasiko dugu.

euskaraz



Airearen kalitatea neurtzeko gailu bat, lurretako Maspe kalean.

Jaurlaritzak Durangoko enpresa biri egotzi dizkie Tecnaliak lurretan atzemandako bentzeno pikoak

Airearen kalitatea "ona" dela berretsi, eta Tecnaliaren txostena "mugatua" dela adierazi du Eusko Jaurlaritzak. Ingurumen Sailak dio bentzeno pikoak Durangoko enpresa bik isurketei aurre egiteko neurriak aktibatu barik zituztela atzeman zirela

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udala, lurretako Udala eta Amankomunazgoko presidentea Ingurumen sailburuordetzako kideekin batu dira asteon. Durangoko eta eskualdeko airearen kalitateari buruz aritu dira, oinarri legez Tecnaliaren txostena hartuta.

Jaurlaritzak lasaitasun mezua helarazi du. Bere esanetan, "ona" da Durangaldeko airearen kalitatea eta parametro guztiak "Europako zuzentarauek adierazitakoak baino txikiagoak" dira. Tecnaliatik Durangoko Udalera ailegatutako txostenaz ere balorazioa egin du Jaurlaritzak. Dioenez, azterketa "mugatua" da. "Lan horren helbu-

Parametroak "Europako zuzentarauek diotena baino txikiagoak" direla esan du Jaurlaritzak

rua ez zen Durangoko airearen kalitatea ezagutzea", dio, "hatsaren iturri potentzialak identifikatzeko azterlana" baino. Bi dira Tecnaliaren txostenean ageri diren bentzeno isuri kezkarriak. 2019ko

urriaren 4ko isuria da bat (metro karratuko 100 mikrograma bentzeno atzeman ziren). Eta 2019ko abenduaren 2koa da bestea (780 detektatu ziren orduan). Bada, Jaurlaritzaren esanetan, kopuru horiek Durangoko enpresa biek isurketetarako neurri zuzentzaileak indarrean sartu barik zituz-

Emisioen "jatorri zehatza" ikertzeko eskatu dio Durangoko Udalak Jaurlaritzari

Durangoko Udalak "positibotzat" jo du bilera. Bere esanetan, Eusko Jaurlaritzak "onartu" du "bentzeno maila altuak isurtzen direla". Aurrerantzean, emisio horiek "zehatz-mehatz" nondik datozen ikertzeko eskatu dio Jaurlaritzari. Ekintza plan bat egitea proposatu dio, besteak beste, neurgailu gehiago ipinita. "Benetan lagundu gura badigute, ondoan izango gaituzte. Borroka alderdikoietatik harago, denok arnasten dugu aire bera, eta, beraz, denok batera lan egin beharko dugu.

tela gertatu ziren. Puntu hau ulertzeko, 2019ko martxora jo behar da. Iazko martxoan, Eusko Jaurlaritzak eskakizun bana egin zien Durangoko fundizio biri bentzeno isuriak murrizteko. Jaurlaritzak ebatzi zuen bentzeno arrastoak lege-mugaren azpitik zeudela, baina Autonomia Erkidegoko beste tokietan baino altuagoak zirela.

Tecnaliaren aztergaia "ez zen airearen kalitatea ezagutzea", "hatsaren iturriak" atzematea baino

Neurri zuzentzaile horiek "2020ko otsailean edo martxoan" ipini zirela gaineratu du Jaurlaritzak. Hau da, Tecnaliak bentzeno pikoak detektatu eta gero.

Kontraesana egon daiteke hor: Durangoko enpresa biri egin zitzaizkien bentzeno emisioak murrizteko eskariak, baina Tecnaliaren txostenak ez ditu emisioak Durangoko lurretan kokatzen, lurretan baino. Dena dela, Jaurlaritzak "neurketa zehatzak egiteko konpromisoa hartu du".

Euskarazko kultura babesteko elkarretaratzera deitu du EHEk

Plateruena Kafe Antzokiaren aurrealdean egingo dute mobilizazioa. Zapatuan izango da, 12:00etan

DURANGO • ARITZ MALDONADO

Euskal Herrian Euskaraz elkarrekin euskararen eta kulturaren aldeko neurri "estrutural eraginkorrak" hartzeko exijituko die instituzioei. "Euskalgintzagaz eta kulturgintzagaz parez pare jesarri, diagnostikoa partekatu eta egoerak eskatzen duen tamainako neurriak adosteko sasoia da", adierazi du elkarteak. Plateruenagaz gertatutakoa ipini dute euskarak eta kulturak bizi duten egoera "kezkarriaren" adibide modura. Euren esanetan, koronabirusaren osasun krisialdia hasi zenetik

"areagotu" egin dira egiturazko eraldaketa sozialak, kulturalak,

"Euskalgintzagaz eta kulturgintzagaz diagnostikoa partekatu eta neurriak adosteko sasoia da"

teknologikoak, ekonomikoak eta politikoak. Plateruena itxita, euskarak arnasmune erreferentziala galduko duela deitoratu du Euskal Herrian Euskarazek.



Durangoko Euskal Herrian Euskarazek otsailean egindako protesta baten irudia.

Nekazaritza eta artisautza azokak asteburuan, Durangon

Zapatuan elikagai ekologikoen azoka egingo dute Andra Marian. Domekan artisauak egingo dira Landako Gunean

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Asteburuan zehar hainbat azoka antolatuko dituzte Durangon. Batetik, azoka ekologikoa egongo da. Andra Mariko elizpean baserriko produktu ekologikoak eskuratzeko aukera egongo da, 9:00etatik 14:30era bitartean. Antolatzaileek tokiko produktuak erosteko gonbitea egin dute. Gaineratu dute azoka osasun berme guztiekin egingo dela. Domekan,

artisauen txanda izango da. Eloorrioko Eixu elkarteak artisau eta sortzaileen azoka egingo du Landako Gunean. 11:00etatik 15:00etara egingo dute. 25 artistek euren lanak erakutsi eta salduko dituzte. Horrez gainera, erakustaldiak ere egongo dira. Artisauak zeramikazko eskulturak, zetazko zapien margoketak, saskiak eta arto-orriz egindako alfonbrak landuko dituzte.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko urriaren 9a
18. urtea - 823. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga eta Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Elorrioko gobernu taldeak 2021eko tasak eta zergak izoztea proposatu du

Gobernu taldekoek jakinarazi dutenez, hurrengo osoko bilkuran eztabaidatuko dute gaia



Gobernu taldeak 2021eko zergak eta tasak izoztea proposatu du.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2021eko tasa eta zerga guztiak izoztea proposatuko duela ezagutzera eman du Elorrioko Udaleko gobernu taldeak. Hurrengo osoko bilkuran eztabaidatuko dute proposamena, eta, udaletik azaldu dutenez, elorriarrei egungo osasun egoeran laguntzea da proposamenaren asmoa. Osasun krisiak ekonomian eta gizartearen eragin duen egoeraz jabetuta, herritarren

Proposamen honegaz elorriarrei egungo osasun egoeran lagundu gura die udalak

ongizateari lehentasuna eman gura diote, tasak eta zergak igotzeak ekarriko lukeen gastu gehigarria arinduz.

"Egungo osasun krisiak eta ekarri dituen ondorio ekonomiko eta sozialak kontuan hartuta, argi geneukan ez genuela zerga eta tasetan igoerarik aplikatuko, nahiz eta horren ondorioz udal kutxetan diru gutxiago bilduko den. Une honetan, badakigu edozein keinu, txikiena izanda ere, oso garrantzitsua dela, eta gobernu talde honen helburua elorriarrei laguntzen jarraitzea izango da", esan du Idoia Buruaga alkateak.

Elorrioko Udalean zabaldu egin dute epea ikasleen garraiorako laguntzak eskatzeko

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak 4.000 euroko diru partida bideratu du 18tik 30 urtera bitarteko ikasleei garraio gastuetan laguntzeko asmoz. "Laguntza horien bitartez, unibertsitateko eta prestakuntza zikloetako ikasketak jasotzea sustatu eta erraztu gura du udalak, eguneroko garraio publikoak sortzen duen gastua ez dadin goi mailako ikasketak egiteko oztopo izan", azaldu du Julene Lazkano zinegotziak. Hori horrela, Elorriotik 115 kilo-

Udalak 4.000 euroko diru partida bideratu du 18tik 30 urtera bitarteko ikasleei laguntzeko

metro baino gutxiagora dagoen ikastetxe batera joan behar duen ikasleen garraio publikoa finantzatzeko dute.

Eskaerak urriaren 31ra bitartean egin ahaliko dira, udaletxeko Erregistro Orokorrean.

Berrizko euskalkia, ohiturak eta antzinako bizimodua jaso dituzte ahotsak webgunean

Besteak beste, 2006 eta 2007. urteetan egindako hainbat elkarrizketa jaso dituzte webgunean

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Udalak eta herriko Badihardugu Euskara Elkartek sinaturiko hitzarmen bati esker, Berrizko euskalkia, hango ohiturak eta antzinako bizimodua jaso dituzte www.ahotsak.eus webgunean.

Webguneko 'Antxinako Berriz. Bizimodua eta ohiturak' atalean,

2006 eta 2007. urteetan berriztarrei egindako hainbat elkarrizketa jasotzen dira. Udalean jasota zeuden grabazioak prestatu, sailkatu eta web orrian ipini ditu Badihardugu Euskara Elkartek. Gainera, hiztun baikoitzari egindako elkarrizketak aztertu eta gero, zatirik interesgarrienak gaika sareratu dituzte. Guztira, 25

grabazio berreskuratu eta katalogatu dituzte.

Proiektuaren asmoa Berrizko euskara eta bertako ohiturak eta tradizioak bildu eta zabaltzea da, besteak beste.

Berriz 1936 Gogoratzen elkartek jasotako hainbat material ere jaso dute webgunean

Berriz 1936 Gogoratzen

Horrez gainera, www.ahotsak.eus/berriz atalean, Berriz 1936 Gogoratzen Elkartek utzitako hainbat material ere jaso dutela azaldu dute Berrizko Udaletik.

Berrizko Udalak 'Suspertu' diru-laguntza programa martxan ipini du

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Babes sozialerako eta suspertze ekonomikorako Bizi Berriz planaren barruan, Berrizko Udalak 150.000 euroko diru partida bat ipintzea erabaki du.

Udaletik jakinarazi dutenez, Berrizko mikroenpresei eta herriko pertsona autonomoi bideratuta egongo da laguntza. COVID-19ak eragindako ondorio ekonomikoak arintzea da diru laguntzaren helburua.

Mendi ibilaldiak, meditazioa eta chikun-yoga Anbotoren magalean urriko zubian

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Kultura esploratu eta Anboto inguruko proiektu eta kondairak ezagutzeko asmoz, hiru eguneko egonaldia antolatu dute Atxondon urriko zubira. Egonaldi horrek hainbat ekimen izango ditu eta bertaraten direnek hainbat ekin-tza izango dituzte aukeran: mendi ibilaldiak, chikun-yoga, meditazioa eta sendabelarrak ezagutzeko tailerra, besteak beste.

CERAMICAS
MACOBER

**ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA**

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Elorri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

hitz *liburudenda* artekalea 23, durango 946 810 776 info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1^o MIÑAN Ametz Arzallus & Ibrahima Balde (Susa)	2^o AITAREN ETXEA Karmele Jaio (Elkar)	3^o IBAIERTZEKO IPUINA Oihane Amantegi (Elkar)	4^o ENE BAITAN BIZI DA Maddi Ane Txoperena (Elkar)	5^o POESIA, ZAURIEN UKENDU Erika Elizari (Elkar)
--	--	--	--	--

Tio Teronen Semeak taldearen 'Festamentua' ikuskizunagaz ekimenez betetako aste kulturala hasiko dute Mañarian

Ekimen sorta urriaren 17tik 24ra garatuko da, eta, besteak beste, musika emanaldi eta antzerki saio bana antolatu dute



Urriaren 17an 'Festamentua' taularatuko dute, dantza eta umorea uztartzen dituen ikuskizuna.

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko Udalak hitzaldi, musika kontzertu, antzerki saio eta emanaldiekin osatutako ekimen sorta batu du urriko aste kulturalerako. Urriaren 17tik 24ra bitartean izango da eta ekimen guztietan parte hartu ahal izateko, aurretik (urria-

ren 12tik 16ra) izena eman beharra dago udaletxean.

Urriaren 17an, 10:00etan, Ondare Jardunaldien barruan antolatutako berbaldi batek emango dio hasiera egitarauari. Mentxu Amunategi irakasleak sendabelarrak izango ditu berbagai. Arratsaldean, 18:00etan,

Tio Teronen Semeak taldeak umorea, dantza eta doinu ezagunak uztartzen dituen 'Festamentua' ikuskizuna eskainiko du. Bertan, hileta batean batzen diren lau lagunen gogoetak plazaratuko dituzte.

Ondoren, 19:00etan, Jesus Martin Moro organistaren kontzertua

hasiko da. Moro Donibane Lohitzuneko elizako organista titularra da 1987tik hona, eta hainbat kontzertu eman ditu European eta Hegoamerikan, Mexikon batez ere. Musika irakasle ere jardun du Iruñeko Pablo Sarasate Kontserbatorioan, besteak beste.

Urriaren 22an, 19:00etan, Dorleta Kortazar ipuin kontalariak helduentzako ipuinak kontatuko ditu liburutegi zaharrean.

Dokumentalaren aurkezpena

Ekimen bik, entretenimendua ez ezik, udalak herriko memoria historikoa berreskuratzen egindako ahalegina bistaratuko dute. Izan ere, 1937ko uztailaren 29an, frankismo epaile militarren agindua betez, Mañariko hainbat emakume atxilotu zituzten eta udalak eta Gerediaga elkarteak, elkarlanean, historiako pasarte ilun hori ikertu dute, emakume horien senitartekoei elkarriketak grabatuta. Ondoren, material horregaz, *Atearen ostean, Mañariko 13 alabak* izeneko dokumentala landu dute. Urriaren 24an estreinatuko dute.

"Errepresioa jasan zuten emakumei eta euren familiei justizia, memoria eta erreparazioa eskaintzea da egitasmo honen helburua", azaldu dute proiektuaren bultzatzaileek.

Aperitibo moduan, frankismo garaiko emakumeen kartzelen gaian aditua den Asuncion Badiola historialariak hitzaldia eskainiko du urriaren 19an, 19:00etan, liburutegi zaharrean.

Rolen araberako heziketaren gaineko hitzaldia eta mahai-ingurua Otxandion

Urriaren 17ko ekitaldia bertatik bertara jarraitzeko, izen-ematea aurretik egin beharra dago

OTXANDIO • J.D.

Gorbeialde elkarteak eta Otxandio-ko Udalak antolatutako hitzaldian, etxeko hezkuntza rolek historian izan duten garrantzia sakonduko du Felix Mugurutzak. Hitzaldia urriaren 17ko zapatuan izango da, 18:30ean, Otxandioko kultur etxean. Izen-ematea aurretik egin beharko da, besteak beste, helbide elektroniko honen bidez: turismo@gorbeialdea.com.

"Hainbat buelta emango dugu historiari edo gure guraso edo aitita-amamek izandako bizipenetatik, ikusteko errealitatea uste genuenetik urrun samar dagoela", azaldu du Mugurutzak sare soziale-tan hitzaldiaren nondik norakoei buruz. Hitzaldia euskaraz izango da eta ostean mahai-inguru bat egingo dute.



Otxandioko kultur etxean izango da hitzaldia.



Mallabiko emakumeen frontenis txapelketan parte hartzeko izen-ematea abiatu dute asteen


MALLABIA • J.D.

Urriko azken asteburuan, emakumeen frontenis txapelketak jokatuko dituzte Mallabian: urriaren 24an buruz burukoa eta urriaren 25ean binakakoa. Txapelketa bakoitza 24 parte hartzaile mugatu dute eta izen-ematea hasita dago. 669 028 718 telefonora deitu behar da horretarako. 8 euro da prezioa buruz burukoan eta 16

euro binakakoan. Binakako txapelkunek 200 euroko saria jasoko dute eta bigarrenak 150 eurokoa. Buruz buruko irabazleak, berriz, 60 euro jasoko ditu eta bigarren geratzen denak 40 euro.

Gizonezkoen txapelketaren antzera, emakumeenak ere gero eta frontenislari gehiago eta hobeak batzen ditu urtetik urtera Mallabian.

**Durangaldeko azken
albisteak jaso gura
dituzu?**



**Batu
Anbotoko
whatsapp
taldera**

Bidali ALTA

688 635 041

telefono zenbakira



Izan zaitez berriemaile ere.

Bidali zure argazki eta bideoak

ABADIÑO • A.M.

Espainiako Auzitegi Nazionalako epailearen aurretik igaro eta gero, Imanol Jaio abadiñarra aske geratu zen, eguaztenean; kargupean geratu zen aske, eta astero aurkeztu beharko du epaitegian. Irunen (Gipuzkoa) atxilotu zuten Jaio, astelehenean. Operazio berean, Guardia Zibilak Ekhiñe Eizagirre eta Kepa Arkauz euskal preso ohiak ere atxilotu zituen. Ertzaintzak 2019an Arraia-Maeztun (Araba) atzemandako lehergai batzuekin lotura izan dezaketelakoan atxilotu zituzten hirurak.

Abadiñon mobilizazioak egin ziren atxiloketak salatzen. Astelehenean, ehunka lagunek Traña-Matiena zeharkatu zuten manifestazioan. Martitzenean eta eguaztenean elkarretaratzek egin zituzten.

Imanol Jaio 2017an bueltatu zen Abadiñora, bizimodua Ziburun (Lapurd) egiten duen arren. Ekhiñe Eizagirre eta Kepa Arkauz 2017an geratu ziren aske, ETAko kide iza-teagaitik Frantzia preso egon eta gero.

Areitio, aske lurretan

Alaitz Areitio iurretarra astelehen gauean heldu zen sorterrira, hamazazpi urtean kanpoan egon ondoren. Azken hamahiru urteak preso egin ditu Areitio. Irailaren 17an irten zuen Renneseke espetxetik (Bretainia), baina urriaren 5era arte hotel batean egon behar izan du konfinatuta koronabirusaren protokoloa dela-eta. 2007ko ekainean atxilotu zuten iurretarra.

Epailearen aurrean deklaratu eta gero, Imanol Jaio abadiñarra aske geratu da, kargupean

Guardia Zibilak astelehenean atxilotu zuen Jaio, Irunen (Gipuzkoa), 2019an aurkitutako lehergai batzuekin lotura izan zezakeelakoan; operazio berean euskal herritar bi gehiago atxilotu zituzten eta horiek ere aske geratu dira



Asteleheneko manifestazioa Traña-Matienan.

Elizondoko igogailuari alegazioak aurkezu dizkiote

EH Bilduk proiektua ez onartzeko eskatu dio udalari; bost arrazoi eman dizkio udalari hau atzera botatzeko

ZALDIBAR • A.M.

Zaldibarko Udalak Elizondon eta Katikenan egin gura duen igogailuaren proiektuak zere-

sana ematen jarraitzen du. EH Bilduk alegazioak aurkeztu dizkio proiektuari, Zaldibarko Udalari proiektua atzera botatzea eskatzeko. Bost arrazoi eman ditu alderdi independentistak.

Besteak beste, proiektuaren erabileraren neurketarik egin ez izana aurpegiratu diote udalari

Besteak beste, "herritarren parte-hartzea" kontuan ez hartzea edo "erabileraren neurketa" bat egin ez izana aurpegiratu diote gobernu taldeari. Sortu daitezkeen "puntu beltzak" aztertzeke ere eskatu dute.



Eneritz Azpitarte (EH Bildu).

Euskaraldian norbanakoek izena emateko epea zabaldu dute Zaldibarren

Zaldibarko 26 entitatek eman dute izena hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketan

ZALDIBAR • A.M.

Zaldibarren motorrak berotzen dabilta Euskaraldiaren edizio berrirako. Jada 26 entitatek eman dute izena aurtengo edizioan Arigune legez aritzeko. Horrez gainera, Ahobizi edo Belarriprest

izan gura duten norbanakoek ere badute horretarako aukera. Zaldibarko Euskaraldiaren batzordeko kideen berbetan, datozen asteetan mahaiak kalera aterako dituzte jendea apuntatu dadin. zaldibar@euskaraldia.eus helbidera


idatzita edo 688 763 844 telefono zenbakira deituta apuntatu daiteke. Urriaren 2an egin zuten aurkezpen ekitaldia, eta 80 bat lagunek parte hartu zuten bertan. Ekitaldian Lutzio eta Leire Lazpitak abestu zuten.



26 entitatek eman dute izena.

Berbalagun prest

Urrian ikasturtea hastegaz batera, Berbalagun talde berriak sortuko dira Zaldibarren. Berbalagun programan euskaraz ikasten ari direnak eta euskaldun zaharrak batzen dira. Egitasmoan parte hartzeko aukera dago urriaren 6tik 22ra izena emanda. Interesa dutenak Zaldibarko udaletxean apuntatu daitezke, baita zaldibarkoberbalaguna@gmail.com helbidera idatzita eta 688 72 29 89 telefonora deituta ere.



MAÑARIKO URRIA KULTURALA

17 zapatua

- 10:00-14:00 ONDARE JARDUNALDIAK: EUSKAL HERRIKO SENDABELARRAK.
- 18:00 TIO TERONEN SEMEAK "FESTAMENTUA".
- 19:00 ORGANU KONTZERTUA .

19 astelehena

ASUNCION BADIOLAREN HITZALDIA.

19:00etan liburutegi zaharrear.

22 eguena

DORLETA KORTAZAR: HELDUENTZAKO IPUINAK.

19:00etan liburutegi zaharrear.

24 zapatua

"ATEAREN OSTEAN, MAÑARIKO 13 ALABAK" EMANALDIA.

(1937an Frankismoak kartzelaratuak Mañariko emakumeei omenaldia) 18:00etan.

Oharra: ekintza guztietan parte hartzeko izena eman behar da aurretik.
Urriak 12tik 16ra bitartean udaletxean.



Bizikletaren erabilera sustatzeko ekintzak egiten hasiko dira hurrengo hileetan

Lehenengo saioan, gaian aditua den batek neguan bizikletan ibiltzeko gomendioak eskainiko ditu. Urtea amaitu bitartean lehiaketa bat ere hasi gura dute, herritarrei bizikletagaz izan dituzten esperientziak partekatzeko bideak eskainiz

DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO

Amankomunazgoak sustatutako '30 egun bizikletan' ekimeneko sari banaketa egin zuten eguaztenean, Iurretako Ibarretxe kultur etxean. Ekitaldi berean, bizikletaren erabilera sustatzeko hurrengo pausoen berri ere eman zuten.

Aldizka, herritar guztientzat diren ekintzak antolatuko dituzte. Hurrengo hileetan egingo dute lehenengoa, eta, aurreratu zuten, gaian aditua den batek neguan bizikletan ibiltzeko gomendioak eskainiko ditu.

Urtea amaitu bitartean, kontakizunen lehiaketa bat ere hasiko dute. Herritarrei bideak eskaintzea da helburua (idatziz, bideoen bitartez...), bizikletan ibiltzearen onurak kontatu eta partekatu ditzaten.

'30 egun bizikletan' ekimena

Bizikletaren erabilera egunero-kotasunean sustatzeko helburuz, Amankomunazgoak garatu duen '30 egun bizikletan' ekimenean 129 lagunek parte hartu dute. Ibarretxe kultur etxeko sariketan, erronka bete dutenari batzuek baino ez zuten jaso saria, ekitaldi jendetsuegia ekiditeko.

Sari banaketa horrez gainera, beste bat ere egin zuten. 2016an Gijonen sortutako '30 días en bici'



Eguaztenean Iurretako Ibarretxe kultur etxean egindako sari banaketako irudia.

herri mugimenduak bizikletarekiko konpromisoa erakutsi duten

Amankomunazgoak garatu duen '30 egun bizikletan' ekimenean 129 lagunek parte hartu dute

enpresak eta erakundeak saritu zituen. Decathlon Durango, Iurretako Lanbide Heziketa ikastetxeak eta Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa saritu zituzten eta aipamen bereziak egin zizkieten Pierburg enpresari, Maristak ikastetxeari eta Elorrioko Udalari. Hain zuzen, Elorrioko Udalak bere '30 egun bizikletan' ekimen propioa

egin du eta 85 herritarrek bat egin dute ekimenagaz.

Bestalde, Durangoko Udalak asteon esan du aurrekontu parte-hartzaileetan herritarrek emandako iritzia eta *Durango berdeago* bat lez ezagutzen den ideiak izan duela babesik zabalena. Besteak beste, bizikletentzat eta oinezkoentzat gune gehiago sortzearen alde egin dute.



Momoitioko San Juan ermita.

Garaiko Udalak herriko toponimia berritzeko ikerketa beka ipini du martxan

GARAI • EKAITZ HERRERA

Martxan da Garaiko toponimia berritzeko ikerketa lana. Udalak ikerketa beka bat kaleratu du eta Jon Ander Ramos iker-tzaileari eman dio toponimia aztertzeko, antolatzeko eta datu base batean biltzeko enkargua. Udalaren asmoa euskarazko leku izenak eta herriko ageriko hizkuntza-paisaia eguneratzea eta normalizatzea da. Herriko toponimia mapa eraberrituko dute ikerketagaz.

Ramosek sei hilabeteko epea izango du ikerketa garatzeko, eta herri mugakideen leku izenak ere aintzat hartu beharko ditu (Berriz, Iurretako, Abadiño). Garaiko Udalak 2.500 euro bideratu ditu ikerketara.

Etxanoko auzo elkarteko kideek martxa herrikoia egingo dituzte zapatu honetan, plazatik hasita

Ibiltariak Etxanoko plazatik irtengo dute, 10:00etan. Maskara erabiltzea beharrezkoa izango dela aurreratu dute

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Eguraldia alde edo kontra izan arren, Etxanoko auzotarrak prestatu daude mendiko botak ipini, zira hartu eta kilometro batzuk elkarrengaz egiteko. Auzo elkarteak martxa herrikoia antolatu ditu zapatu honetarako. Martxa bi izango dira eta ibiltari bakoitzak bere gaitasunen arabera aukeratu beharko du bata ala bestea.

Ibilaldi nagusiak 13 kilometroko luzera izango du. Gutxi gorabehera inguruko paraje hauetatik joango dira ibiltariak: Duteatik hasi eta Epaltza aldera mugituko dira, eta ondoren Urritxe, San Migel, San Martin eta Santa Luzia auzoak zeharkatuko dituzte. Handik buelta egingo dute Duteara. Ibilbide hori barik zerbait laburragoa egin

gura duenak ere edukiko du horretarako aukera. Martxa laburrak Dutea, Epaltza, Urritxe eta Santa Luzia zeharkatuko ditu. Handik berriro ere Duteara bueltatuko di-

Zailtasunaren arabera ibilbide bi prestatu dituzte; luzeena 13 kilometrokoa izango da

ra. Martxa biak Etxanoko plazatik abiatuko dira, 10:00etan. Antolatzailerik segurtasun distantziak gordetzeko eta maskara erabiltzeko eskaria egin diete parte-hartzaileei. Nork bere hamaiketako eramateko ere eskatu dute.



Etxano eta inguruko parajeak zeharkatuko dituzte martxan.



Zornotzako dendek zabalik dute udalaren diru laguntzak eskatzeko epea

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak 200.000 euro baliatuko ditu koronabirusaren eraginez kaltetutako negozio txikiei laguntzeko. Eskatzaile bakoitzari 1.000 emango dizkio gehienez. Diru laguntzak elementuen instalazioak, ekipamenduak eta elementu suntsikorak finantzatzeko erabili beharko dira. Udalak gastuen %80 finantzatuko du eta 1.000 euro eskainiko ditu, gehienez, eskatzaile bakoitzeko.

Komertzioek Herritarren Arretarako Zerbitzuan egin beharko dituzte eskaerak. Urriaren 30era arteko epea izango dute, 100.000 euroko diru partida agortu arte.



Unai Esturo, Jone Guenetxea eta Xabier Zabala lurretako plazan. AMAIUR ARISTI. DANTZAN.EUS

“Garrantzitsua da dantzari gazteek jakitea normaltasunez egin duten aldaketa horren atzean zer dagoen”

Bideografiko ekoiztetxeak, lurretako dantza taldeak eta ANBOTOk landutako 'Jantzari' dokumentala aurkeztuko dute gaur, lurretako plazan

IURRETA • ANBOTO

Tradizioa etenik bako aldaketa prozesu bat da. Hala ere, badira momentuko tradizioa mugiezin-tzat hartzen dituztenak. Dantza munduan, tradizioaren leihoak parekidetasunaren alde zabaltu dituzte hainbat herritan. 'Jantzari' dokumentalak gai honen inguruko gogoeta mahaigaineratzen du dantza aitzakia hartuta. Unai Esturo lurretako dantza taldeko kidea dokumentaleko produktorea izan da, ANBOTOk Jone Guenetxea zuzendaria, eta Bideografikeko Xabi Zabala errealizadorea.

Zein sentsazio duzue?

Jone Guenetxea: Martxoaren 26ko aurkezpenak ikusmin handia piztu zuen arren, bertan behera utzi behar izan genuen COVID19-aren eraginez. Zalantza genuen egoera honetan aurkezpena egin ahalko genuen, eta eginda ere, jendeak ikusteko gogoia izango zuen.
Xabi Zabala: Alde horretatik, oso eskertuta gaude jai batzordeak udazkeneko egitarauan aurkezpena egiteko aukera eman digulako.
Unai Esturo: Sarreren banaketa oso ondo doa eta nabaritzen da jendeak dokumentala ikusteko gogoia duela.

lurretako plazak badu bere balio sinbolikoa aurkezpenerako.

X.Z. : Jakina. Leku magikoa da aurkezpena bertan egiteko. Gainera, kontuan izan dokumentaleko zati bat iazko Urrijenan grabatuta dagoela, eta urtebete geroago sasoi horretan leku berean aurkeztuko dugu.

“

Gogoetarako lan bat bada, autokritikatik eta zintzotasunetik ere kontatu behar dira gauzak, beti ere inor mindu barik”

Tradizioa eta parekidetasuna. Leku guztietan ez dira elkarren eskutik joan.

J.G. : Lurretaren kasuan, dokumentaleko parte-hartzailerik gazteenek esaten zuten ezpatadantzari lege normaltasunez irten zutela plazara 2018an lehenengoz. Egia da normaltasunez gertatu zela, baina ez berez. Dantza munduan, hainbat taldek eta pertsonen lan handia egin dute parekidetasunaren alde. lurretan bertan ere bai. Beti ez da horrela izan.

U.E. : Gu ez gara Dantzari Dantzan

talde parekidea sortzen duen lehenengo taldea. Alde horretatik, ez gara aitzindariak izan. Jende askok herri askotan lan handia egin du eta aurretik emanda zuten pauso hori.



lurretako dantza taldearen historia kontatzen duzue.

J.G. : Bai, talde parekiderako bidea zelan egin den azaltzen da. Genero ikuspuntutik dantza taldearen inguruko ibilbide horren errelato

bat egin dugu. Hori da gidoi alde-tik gehien arduratzen nauena. Belaunaldi askotako emakume eta gizonak agertzen dira. Gura nuke kontatzen den diskurtso orokor horretan denek euren burua islatuta ikustea. Kontatzen den horregaz identifikatzea.

Ez da erraza izango.

J.G.: Baina gogoetarako lan bat bada, uste dut autokritikatik eta zintzotasunetik ere kontatu behar direla gauzak, beti ere inor mindu barik.

Miren Bikandiren berbak inoiz baino ozenago entzungo dira lurretako plazan.

U.E. : Konfinamendu hasieran joan zitzaigun Miren, eta berarentzat omenaldi polita izango dela uste dugu.

Miren ezagutzen ez duenarentzat, zein ekarpen egin zien lurretako dantzei?

U.E. : Miren Bikandi Juan dantzari-maisuaren alaba zen. Aitak erakusten zien mutikoen taldeko entseguetan ikasi zuen Mirenek dantzan. Plazara sekula ere irten barik, jakina. Aita nagusia zenean, Erregelak berreskuratu guran Juanengana joan ziren, baina gurpildun aulkian zegoen. Mirenek

erakutsi zizkien pausoak. Istorio hau ez da hain ezaguna izan orain arte, eta garrantzitsua da aintzat hartu eta merezi duen errekonozimendua egitea.

“

Oso eskertuta gaude jai batzordeak udazkeneko egitarauan aurkezpenera egiteko aukera eman digulako”

—

J.G.: Gainera, garrantzitsua da dantzari gazteek jakitea normaltasunez egin duten aldaketa horren atzean zer dagoen. Orain urte batzuk emakume batek debekatuta zuten ezpatadantzari izatea.

Dokumentala ikusi dutenek diote-nez, irudi aldetik zoragarria da.

X.Z. : Ikusle lege plaza honetara dantzariak ikustera nentorren bakoitzean dantzariak ondo grabatzeko gogoia izaten nuen. Bada, dokumental honetan hori lortu dugula esango nuke. Urrijenako dantzak bost kameragaz grabatu genituen. Bestalde, dantzaren sinbologia guztia iruditan jasotzen ahalegindu gara.



Gerediaga Elkartea.

Hareek denporak!

'Zezenak ez dira' aurten San Fausto jaietan

"Dira dira, zezenak dira" dioen abestia aurtengoan ez da errealitate bilakatuko Durangon. COVID19aren krisiaren eraginez, ez da jairik izango. 400 urtetik gorako tradizioak etenaldia izango du, beraz. Gerediaga elkartearen argazki hau noizkoa den

jakin ez arren, jaietakoa zein inauterietakoa izan daitekeela kaleratu zuen ERAZ aldizkariak. Sasoi batean karnaballetan ere askatzen ei zituzten bigantxak Durangoko Alde Zaharrean. Irudi hau Santa Ana plazan aterata dagoela ikusten da.

Politikan

Jesica Ruiz

PSE-EE



Patxikotxu, aurten ez dugu elkar ikusiko!

Asteburu honetan Durangoko jaiak hasi beharko genituzke. Zoritzarrez, daukagun egoerarekin ezin izango dugu ospakizuna aurrera eraman. Kuadrillako poteoak, familiako janariak edo kanpoko lagunei gure herrira etortzeko gonbidapenak alde batera utzi behar ditugu. Baina alde positiboa bilatu dezakegu, egun batzuk izango ditugu irteerak egiteko edo atsedena hartzeko aurretik daukagun udazkenari gogor eusteko. Orain lehentasuna guztion osasuna da eta hori denon ardura da.

Durangarrak arduratsuak gara eta horrela demostratuko dugu egun hauetan

San Faustoetan Durangoko kaleak zapi urdinez (bai JAEDekoak bai lauki zuri urdinekoak) betetzen dira. Guretzat egun bereziena, noski, San Fausto eguna da, urriak 13, eta hori ezin dugu ahaztu. Pena bat izango da guretzat jaietako ekintzarik tradizionalena, artopil banaketa, ez izatea. Baina honekin erlazionatuta, ni proposamenak egin nahi dizkizuet, alde batetik balkoiak jaietako zapiekin dekoratzea eta bestaldetik zergaitik ez gara saiatzen gure etxeetan artopilak egiten?

Durangarrak arduratsuak gara eta horrela demostratuko dugu egun hauetan, ezin dugu atzerapausorik eman. Denbora hobeak etorriko dira eta hurrengo urtean gure kaleak kolorez eta jendez beteko ditugu. Baina, momentuz, hurrengo urtera arte Patxikotxu eta San Fausto.

Durungaldea asteen

Asteburutik aurrera kirol norgehiagokak bueltan dira Durangoko atletismo pista

Durango | Durangoko atletismo pista bere lehiaketa egutegia berreskuratu du. Asteburu honetan 16tik, 18tik eta 20tik beherako Bizkaiko banakako txapelketak jokatuko dira. Amankomunazgoak segurtasun protokoloa adostu du Euskal Atletismo Federazioagaz. Amankomunazgoak lankidetzaz eskatu du neurriak betetzeko eta erantzukizunez jokatzeko.

Martxan da Elorrioko Udalak umeentzat antolaturiko irakurketa lehiaketa

Elorrio | Elorrioko Udalak gazteen artean kultura bultzatzeko apustua egin du beste behin ere, eta umeentzako irakurketa lehiaketaren 26. edizioa ipini du martxan. Lehiaketa abenduaren 3ra arte egongo da martxan, eta 18 urtetik beherako gazte elorriarrek parte hartu ahalko dute bertan.

Zornotzako Legarrebi auzoa urbanizatzeko lanak bigarren fasean sartu dira

Zornotza | Zornotzako Udalak Legarrebi urbanizatzeko lanen bigarren fasea hasi du. Bizilagunentzako irisgarritasuna, garajetarako sarbideak eta oinezkoen espazioa hobetuko ditu. Horretarako, 140.000 euroko aurrekontua du udalak eta lau hilabeteen amaiteza aurreikusten dute. "Jarduera horren bitartez, oinezkoari lehentasuna eman gura zaio", adierazi dute udaletik.



Moriako kanpalekuko errefuxiatuentzat janaria biltzen dabilta egunotan Durangon

Durango | Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarteak bat egin du Zaparrean elkarteak Euskal Herrian egin duen deialdiagaz, eta "larrialdiko janari biltza" egingo dute Durangon. Irailaren 8an Moriako errefuxiatuen esparruan (Lesbos uhartea, Grezia) gertaturiko sutearen ondorioei erantzuteko antolatu dute janari biltza.

Andra Mariko elizpean egiten dabilta biltza: gaur, barikua, arratsaldean egongo dira, 16:00etatik 20:00etara; 10ean, zapatua, goizean egongo dira, 10:00etatik 14:00etara.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



Ezagutu eta erabili Durungaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!

merkataritza
gida sarean

anboto.org/gida



Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)

Etxeajantzi

DEKORAZIO GEHIGARRIA 2020

anboto
komunikabideak



famalive
Durango

**Zure estiloa,
zure sofa.**

Sortu zure sofa pertsonalizatua.

946 41 88 67
Frantzisko Ibarra 8, Durango.





BALKOIAK



Zein garrantzitsuak izan diren aurren
ahaztuta geneuzkan terraza
eta balkoiak!

Jantzi itzatzu etxeko beste gela
bat izango balira lez. Argiztatu
faroltxoekin zein girlandekin, bete
loreekin eta leundu espazioa alfombra
eta kuxinekin.



**Pintura guztiak
ez dira berdinak.
Uno Zero.**

Bakteriorik gabe • Lizunik gabe • Usainik gabe • Emisiorik gabe

MONTÓ
profesional

DURANGO MARGOAK

DURANGO MARGOAK
Askatasun Etorbidea, 9
DURANGO
Tel.: 946 40 88 20
www.durangomargoak.com

Karmelo Agirre
Barne Diseinua
kolegiatu zenbakia 183 C.O.D.D.B.

Proiektuak, **etxebizitzak**, komertzioak,
ofizinak, **dekorazio integrala**

karmelointeriorismo@gmail.com ☎ 610 50 10 86

C E R A M I C A S
MACOBER

Eitua industrialdea, 65 BERRIZ
Tel.: 946 827 890
www.macober.com

ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA

Etorri eta ikusi

TABIRA
COLOR

Baduzu ideia bat? Margotu ezazu!

ArmeriaEskola^x

Tabira Color-en

beharrezkoa den guztia dugu konpontzeko,
pintatzeko eta dekoratzeko.

AHOLKULARITZA
PROFESIONALA

TABIRA
COLOR

BERRIKUNTZAK
DITUGU

**AZKEN
BELAUNALDIKO
PINTURETAN**
**PINTURA
EKOLOGIKOETAN**
**ORBANEN
KONTRAKO
PINTURETAN**

**ZATOZ GU BISITATZERA
ETA INFORMATZERA**

Montorretas Ind. 9-F Pab. DURANGO
Tel.: 946 217 911

TEKNOLOGIAK ZURE ESTILO PROPIOA AUKERATZEN LAGUNTZEN DIZUNEAN

Sofa bat erosterako orduan aurkitzen dugun zailtasunik handiena akabarak aukeratzeari izaten da. Normalean, ekoizle bakoitzak tapizatze konkretu batzuk eskaintzen ditu eta askotan horietara moldatzea baino ez zaigu geratzen.

Baina zer gertatuko litzateke sofaren estilora gu moldatu beharrean, sofa gure estilora moldatu bage-nezake?

Hain zuzen, horregatik hitz egin nahi dizuegu Durangon dagoen Famaliving sofa pertsonalizatuaren inguruan. Denda hau Frantziako Ibarra kaleko 8. zenbakian dago. Bertan, mota eta estilo guztietako laginak aurki daitezke. Baina, zein da beste dendeikiko desberdintasuna? Bere benetako alderik dibertigarriena, ukipen-pantaila. Bertan, sofaren estiloekin, eserleku kopuruekin eta akabera mota ezberdinekin jokatu

ahal izango duzu. Hanka ezberdinen formak eta materialak, euskarrien koloreak, estanpatuak, chaislongueak eta mota guztietako osagarriak... Motorizazioa gehitu nahi diozula? Zergatik ez... Zure ametsetako sofa sortu ahal izango duzu 3D simulagailuarekin.

Gamarik altueneko sofak izateak ez du zertan mehatxu bat izan prezioan. Erosketa bakoitza eroslearen gustu eta beharrezko neurria egindakoa denez, zure aurrekontura egokitu dezakezu. Teknologia irudimenaren zerbitzura egina dago eta amaitu dira sofa batekin konformatzeko garaiak. Egin apustu zure ongizatearengatik eta zure etxeko beharrezko ondoen erantzun dion sofarengatik. Pertsonalizatua bezain perfektua, zuretzat eta zure familiarentzat.

Marka honek barnean daukagun sormen ahalmena ateratzeko aukera ematen digu, diseinatzaile sentitzeko. Testurak, materialak, koloreak eta estanpatuak gure nahietara konbinatuz. Guztiz gomendagarria izango den esperientzia bihurtuz. Dendako ordutegia astelehenetik barikura 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara da. Zapatuetan, goizez baino ez da egongo zabalik. Dena dela, tratatu pertsonalizatuago bat eduki nahi baduzu, txanda hartzea gomendatzen dizugu. Deitu 946 41 88 67 zenbakira zeure esperientzia bizitzeko.

Sormena
lantzeko prest?
Etorri gurera
eta inspira
zaitez!



José David Espinosa Gonzalez

**LEUNKETAK eta
BERNIZADURAK**

OHOLTZA BERRIAK ETA ERABILITAKOAK
PARKET EZARPENAK, OHOL ETA BALDOSA GAINEAN

Tel. 94 684 25 17
Mugikorra (Jose David) 687 537 732
jose.pinky@yahoo.com

Bº Artikas, 26 - 48288 Ispaster
Avd. San Andres 30, 1ºD- 48250 Zaldibar

jazz
solutions

Durangoko Plateruen Plaza, 12 bajo - Durango

lizentziak, proiektuak eta obraren zuzendaritza

barne diseinua

kudeaketa bisuala

lan guneak

94 621 59 64

www.jazzsolutions.es

R.E.A.:15/48/0014485
K.Z.: 0544-BI





BERO EDER
www.beroeder.com

BERO EDER Berriztagarriak

AEROTERMIA-BIOMASA-EGUZKI ENERGIA-ZORU ERRADIATZAILEA

Berokuntza instalazioak eta energia berriztagarriak bizitegi-eraikinetarako, familia bakarreko etxebizitzetarako, landetxeetarako eta baserrien birgaikuntzarako

AEROTERMIA



BIOMASA

GALDARAK, ESTUFAK ETA EGUR ETA PELLET TXIMINIAK

EGUR ETA PELLET SUKALDEAK, EKONOMIKOAK, BERO-EMAILEAK,
GAS-ELEKTRIKOEN KONBINATUAK ETA NEURRIRA EGINDAKO MULTZOAK



BERO EDER – Ixer, 20 Etxabea – 48340 – AMOREBIETA (Bizkaia)
Tfnoa: 946300829 – Posta elektronikoa: info@beroeder.com

EGONGELA

Egongela atsegina lortzeko, ez dira zertan kolore argiak erabili. Erabili kolore indartsuak eta konbinatu material leunekin. Ausartu zaitez egongelako mahaiarekin. Jolastu formekin, nibeekin eta estiloekin, ukitu moderno eta ezberdin bat emateko. Animatuko zinateke irudiko kolore berde horrekin?



izei®

ETXE PERTSOLANIZATUAK, NEURRIRA
EGINDAKO ALTZARIEKIN.
SARTU ETA LASAI ESKATU AURREKONTUA.

Intxaurrondo 10 Durango - Tel.: 94 681 59 94
decoradores@izeidecoracion.com



ALKI

BARNE DISEINUAK-en, bizitzeko
espazioak sortzen ditugu.

alki@interioresalki.com / www.interioresalki.com

Mikeldi kalea 6, 48200 Durango. 946813895/679097744



Etxe honetan leihoak aldatu dituzte...

...nabaritzen da?



Kalitatezko leihoak jartzea ezinbestekoa da isolamendu ona izateko. KÖMMERLING-ekin tenperatura ideala izango duzu etxean, eta ahalik eta gehien aurreztuko duzu energia aldetik. Gozatu egingo duzu etxean egonda.

Zer eskaintzen dizute KÖMMERLING leiho sistemek?

- *isolamendu termikoa*
- *isolamendu akustikoa*
- *energia aurrezte*
- *material birziklagarriak*
- *estankotasuna urari*
- *mantenurik gabe*
- *erresistentzia haizeari*
- *kolore guztiak kolorten-ekin*



**Imajinatzen duzuna baino gertuago,
Durangaldeko instalatzaile ofiziala duzu**



KÖMMERLING®

Lehio sistemak

Zoladurak
Oholtzak
Leihoak

Ateak
Armairua
Eguzki-babesa
Gortinak
Alfonbrak



APAINKETAK
ROYUELA
BERNIZADURAK-LEUNKETAK

Jokatu zure espazioekin modu
xume eta pertsonalizatuan

Kalebarria, 40 Durango
Tel.: 946 810 582 · info@royuela.biz



KÖMMERLING®
Sistemas de ventanas

SUKALDEAK



Jolastu
detaileekin.
Ausartu kolore
edo material
berriekin.



Sukaldean,
mahaia ala irla?
Edozein aukeratuta ere, joslatu
material desberdinekin.
Ausartu zaitez lanpara originalak
jartzen. Sukaldeko edozein puntu
izango da arreta zentroa.



MUEBLES DE COCINA Y HOGAR
ARRIANDI
SUKALDE ETA ETXEEKO ALTZARIAK

Urbitarate industrialdea, 6 - Lokal 3
48220 Abadiño
Tel.: 94 620 26 56
Movil.: 657 79 38 72
abadiano@arriandi.com
santosarriandi.com

ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

**UNAI
GARAY**

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 · unaigaray@yahoo.es

LAGOI

MOTA
GUZTIETAKO
ZERAMIKAK

Aholkularitza
pertsonalizatua

Eraikuntzarako
materialak

SUOMI - Astolabeitia kalea, 9 - Abadiño - Tel.: 94 621 52 84

BILTEGIA ETA ERAKUSKETA

bed's

Zure atsedenearan
pentsatzeko sasoia da
Bisita gaitzazu!

Zure premiak erantzuteko prest izango gara:
bed's koltxoi - denda
Alluitz 1, Durango
T. 944 005 980

KOLTXOIAK | OHE-OINARRIAK | BURKOAK | OHEKO ARROPA

leike aroztegia
diseinua &

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com Antso Estegiz, 3 Durango · Tlf.: 94 681 72 29 · leike.ad@gmail.com



ANBOTOREN LAGUNAK

Euskarazko hedabideok mundua ikusteko modu propioa dugu, euskaratik eta euskaraz.

Orain, gure komunitatearen konpromisoa inoiz baino beharrezkoagoa dugu aurrera egiteko, euskarazko eta kalitatezko kazetaritza egiten jarraitu ahal izateko. Izan ere, bizi dugun egoera ekonomikoagaz **ANBOTO**ren jarduna kinka larrian dago.

Jarri ezazu zure alea euskarazko informazioa sortzen eta garatzen jarraitu dezagun, Durangaldea ezagutzen, bertan gertatzen denaren berri ematen eta gure ikuskera zabaltzen jarraitu dezagun.

ANBOTOren laguna izan gura duzu?

Urtean **30 euro** ordainduta, **ANBOTO** komunikazio proiektuari sostengua emango diozu.

Bidali mezua: anboto@anboto.org

Deitu: 94 681 65 58

Bete formularioa: www.anboto.org





Gora kasete!

IKUSKIZUNA **ELORRIO :: Urriak 12**

Musika, zinea eta antzerkia, ikastolen eskutik

Aurten ez dute Ibilaldia egingo. COVID-19aren krisiak eraginda, Ikastolen Elkartek bertan behera utzi behar izan du Elorrioren urriaren 18an ospatzekoa zen ikastolen jaia. Hala ere, hainbat ekitaldi antolatatu

dituzte hurrengo asteetarako. Aurretik izena ematea ezinbestekoa izango da.

'Gora Kasete!' umeentzako ikuskizunak abiatuko du presatatutako egitaraua, urriaren 12an. Izeba Margaritaren urte-

guna da eta zer oparitu erabaki behar dute bere ilobek. Hori Eidabe taldeak Txintxirri ikastolan 18:00etan eskainiko duen antzezlanaren muina. Urriaren 14an, Galder Gazte-lu-Urrutiaren *El Hoyo* filma

emango dute, Arriolan. Hori ere 18:00etan. Eta, ondoren, zuzendariagaz berriketaldia egongo da. Urriaren 17an, Iza-ki Gardenak taldea etorriko da eta, 18an, Ibilaldiaren Agur ekitaldia egingo dute.

Urriaren 9an

BERRIZ zirkua
'Lunatis Zirkus' (Teatro Paraiso),
18:15ean, Berrizko Kultur Etxean.

IURRETA dokumentala
'Jantzari: tradizioa eta parekidetasuna' dokumentala, 20:00etan eta 22:00etan.

ZORNOTZA tailerra
Mangamore 2020: 'Ureshi' marrazki tailerra eta berbaldia, 20:15ean, Zornotza Aretoa.

Urriaren 10ean

DURANGO azoka
X. Nekazaritzako eta Eskulangintzako Produktuen erakusketa eta salmenta, 09:00etan, Andra Mariko elizpean.

DURANGO berbaldia
'Sare sozialak'
11:00etan, San Agustin kulturgunean. 11 urtetik gorako gaztetxoei zuzendutako berbaldia.

DURANGO pailazoak
Puski eta Txurruksi pailazoak, 13:00etan, Landako Gunean.

IURRETA bertsoak
Bertso jaialdia: Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Onintza Enbeita, Unai Iturriaga eta Jon Maia bertsolariek kantatuko dute, 20:00etan, lurretako plazan. Gai-jartzailea: Ainhoa Urien.

ZORNOTZA ikuskizuna
Mangamore 2020: 'Garuna Effect' ikuskizun zientifikoa, 13:30ean, Amorebieta IV Frontoian.
'Ichiban: el primer latido' musika eta dantza ikuskizuna, 19:30ean, Amorebieta IV Frontoian.

Urriaren 11n

DURANGO azoka
Artisautza Azoka, 11:00etan, Landako Gunean. Eixu elkarteak antolatuta.

DURANGO dantza
'Gorria' bertso-flamenko emanaldia, 13:00etan, Plateruena kafe antzokian. Miren Amurizak eta Askoa Etxebarrieta 'La Pulga'-k eskainitako ikuskizuna.

Urriaren 13an

DURANGO garbiketa
Mañaria errearen garbiketa, 11:00etan, Landako Gunean.

Urriaren 14an

ELORRIO dokumentala
Hileko dokumentala: 'Marwa. Pequeña y valiente', 19:30ean, Iturri kultur etxean.

DURANGO erakusketa
'San Fausto gogoan', Argazki instalazio ibiltaria. Zezenak Dira oroitzapenezko bideoa ere ikusgai jarri dute Durangoko Udaleko sare sozialetan.

ZORNOTZA zinekluba
'Papicha. Sueños de libertad', 20:15ean, Zornotza Aretoa.

Urriaren 16an

DURANGO bertsoak
Bertso jaialdiak. Bittor Altube Sarrionandia, Leire Vargas Nieto, Igor Galarza Intxausti eta Aritz Katarain Mugarza bertsolariek kantatuko dute, 22:00etan, Errota kultur etxean. Gai-jartzailea: Jon Zialzeta Pagonabarraga. Katalamixon elkartearen 5. urteurrena ospatzeko antolatutako saioa.

ELORRIO pailazoak
'Yo la peor del mundo' (Vaiven Produzioak), 20:30ean, Arriola antzokian.



FALLING

Zinea

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Akelarre**
barikua 9: 22:00
domeka 11: 19:00

:: Durango ZUGAZA

• **Falling**
barikua 9: 19:30/22:00
zapatua 10: 20:00
domeka 11: 20:00
astelehena 12: 20:00
martitzena 13: 18:00
eguztzena 14: 19:00

• **Verano del 85**
barikua 9: 19:30/22:00
zapatua 10: 18:30/21:00
domeka 11: 18:30/21:00
astelehena 12: 18:30/21:00
martitzena 13: 18:00/20:30
eguztzena 14: 19:30

• **Eso que tú me das**
barikua 9: 19:30
zapatua 10: 18:30
domeka 11: 18:30
astelehena 12: 18:30
martitzena 13: 18:30/20:30
eguztzena 14: 19:30

• **Akelarre**
barikua 9: 22:00
zapatua 10: 17:00/19:00/21:00
domeka 11: 17:00/19:00/21:00
astelehena 12: 17:00/19:00/21:00
martitzena 13: 20:30
• **El arco mágico**
zapatua 10: 16:30
domeka 11: 16:30
astelehena 12: 16:30

:: Elorrio ARRIOLA

• **Akelarra**
zapatua 10: 22:00
domeka 11: 20:00
astelehena 12: 20:00
• **El Drogas**
zapatua 10: 19:00

:: Zornotza ARETOA

• **El niño y la bestia (Mangamore 2020)**
zapatua 10: 12:00

• **Captain Harlock (Mangamore 2020)**
domeka 11: 12:00

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguzten eguerdia baino lehen.



**Azkeneko
aukerak**

IURRETA *Tellitu-n*

*3 logelatako 6 etxebizitza
2 logelatako 11 etxebizitza
Garajea eta trastelekua barne*

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

“Esateko zailak zaizkigun egoerak ulertzen eta laguntzen digu poesiak, minarenak zein plazerarenak”

Ainhoa Urien ANBOTOkolaboratzaileak 'Poesia zaurien ukendu. Xabier Leteren arrastoan' liburua kaleratu du oraintsu, Pamiela argitaletxeagaz



Ainhoa Urien Telletxe

Idazlea

Abadiño | 1995

baino, solasaldiak egitea gustatuko litzaidake. Zoragarria litzateke irakurleen iritzia entzutea. Hau ez da lan akademiko bat. Beharbada, hemendik hamar urtera ez dut berdin pentsatuko, eta, beraz, irakurlearen iritzia entzun gura nuke. Bizitzan uneoro izaten ari gara, ez dut uste izate estatiko bat dugunik. Eta hori aldatzen den modu berean ere aldatuko da irakurketa.

Irakurri, entzun, bizi eta idatzi. Hori xe izan da zure metodologia liburua idazterakoan.

Sekulako abiaduran eta estimulu pilo baten pean bizi gara. Dena eskura dugu, eta ez dugu ezer egiten aldi berean. Asko kostatzen zaigu geratzea, jendeagaz egotea eta berba egitea. Jendeagaz egonda egin dut liburua, hain zuzen ere. Eta horixe izan da nire bidaia, jendeagaz egon ahal izate hori. Ez da erraza, baina egin daiteke. Eta sinesten dut sortzea norbere burua zaintzeko modu bat dela dioen teoriarik. Batzuek pintatu egiten dute, beste batzuek dantzan, baina zerbait kontatzen duzunean, lasaitu egiten zara.

Hamarkada beteko da Xabier Leteren hil zela. Aitortza falta bat dagoela iradokitzen duzu liburuan.

Urteurren honek kasualitatez harrapatu nau, badakit lan batzuk publikatzekoak zirela honen harira, baina ez da nirearen kasua. Uste dut maitasun-gorrotorik bat dagoela Leteretik. Mikel Laboa, adibidez, aho batez da maitatua. Leteren kasuan, baliteke EAJko diputatua izateak jende bat urruntzea eragitea. Iruditzen zait ez zaiola egiten merezi duen aitortza. Liburuan ere aipatzen dut. Konturatzen ez garen hainbat gauza eman dizkigu Letek: Nork ez du abestu *Xalbadorren heriotzean*? Era berean, *Izarren hautsa* ere himno bat da, bertsoan erabiltzen diren doinu mordoa ere bereak dira, eta itzulpenen bitartez, Jacques Brelen kasuan legez, ordura arte hemen ezagutzen ez ziren korronte filosofikoak ekarri zituen. Eta ez dago plazarik edo kalerik bere izenagaz. Bere lana gustatu edo ez, egindako ekarpena itzela da. Nire liburua ez doa hortik, baina hori azpimarratu gura nuen.

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Xabier Leteren poemek beragan izandako eraginaz eta sorkuntzaren balio terapeutikoaz berba egiten du Ainhoa Urienek bere lehenengo liburuan. Gogotsu dago, gainera, irakurleagaz solasaldietan irakurketak sorturikoak partekatzeko. Liburuaren azala Gotzon Garaizabal elorriarrak egin du.

'Poesia, zaurien ukendu'. Terapeutikoa da sortzea?

Ez dakit terapia berba egokia den, baina bada aringarri bat, hobeto sentiarazteko modu bat. Eta ikusi nuen Leteren poemetan ere baze-goela hori. Niri on egiten didanak beste batzuei ere on egiten diela kontatzen ahalegindu naiz. Esate baterako, Martxel Mariskalen eta Alaine Agirreren kasuak agertzen dira. Badago jende bat bere egoeragaitik bultzatuta egon dena sufrimendutik idaztera, baina ez nuke gura liburua sufrimenduari buruzko lantzat hartzea. Funtsean,

ulertzen eta esaten zailak zaizkigun egoerak ulertzen eta adierazten laguntzen digu poesiak, minak sortutako egoerak zein plazerak sortutakoak.

Egunsentiaren esku izoztuak irakurri nuenean, ez nuen imajinatu ere egiten honen guztiaren lehe-

“Esango nuke saiakera literario pertsonala dela, kutsu poetikoduna; ez da erraza kalifikatzeko”

nengo hazia izango zenik; irakurri nuenean, zerbait mugitu zidan barruan, eta hor hasi zen bidaia, nik jakin barik. Horren ostean, unibertsitaterako egin nuen lana dago. Banituen ideia batzuk lanerako. Irakurrita nituen Leteren poemak,

eta, aztertu ostean, urte askoan gaixorik egon zela ikusi nuen; ikusi nuen parekatu zitezkeela Leter gaixorik egotea eta sorkuntza terapeutikoa zela. Horixe erakusten zuten bere poemek. Azkenik, Joxerra Gartzia ezagutu nuen. Lana irakurri, eta, ukitu akademikoa kenduta, liburua egitea posible zela ikusi zuen. Bere ideia izan zen. Hiru mugarri horiek aipatuko nituzke. **Bidaia bat proposatzen diozu irakurleari.**

Bidaia bat kontatzea da nire helburua, eta idazkeraren bitartez bidaia horretan konplize egin gura dut irakurlea. Eta hor bide bi daude: batetik, nire bide propioa, poema horiek irakurtzean sortu dizkidatenak kontatzen dudana, eta, bestetik, poesia edo sorkuntza terapeutikoa izan daitekeen aztertzen dudana.

Poemak agertzen dira, baina ez da poesia liburu bat. Estilo aldetik ere bilatu duzu konplizitate bat.

Bai, idazkeraren bitartez edukia in-

teresgarri egingo zaiola irakurleari uste dut. Leteren figura amu bat da neurri batean. Poesia asko du, baina ez da poesia liburua; saiakera

“Ez dago plazarik Xabier Leteren izenagaz; bere lana gustatu edo ez, berak egindako ekarpena itzela da”

literario berezi bat da, normalean ikerketak izaten direlako, baina ez da honen kasua. Esango nuke oso saiakera literario pertsonala dela, kutsu poetikoduna. Ez da erraza kalifikatzeko.

Bidaia horretan, zein da hurrengo geltokia?

Liburuaren aurkezpenak egin

Denda birtuala izango da 55. Durangoko Azokako salerosketa gune bakarra; Landako Gunean aurkezpenak baino ez dira egingo



Eguenean egin zuten prentsaurrekoa., Plateruenean.

DURANGOKO AZOKA • A.M.

"Ezohiko egoerari ezohiko erantzuna" ematea erabaki du Gerediaga Elkarteak Durangoko Azokaren edizio berriari begira. Hain zuzen ere, aurten ez da standik egongo Landako Gunean. Salerosketa gune bakarra webgunean egongo den denda birtuala izango da. Egitarau aldetik ere nabarmena izango da aurten, izan ere Landako Gunean eta Plateruenean egingo dira ikuskizun eta ekitaldiak. Urriaren 8an zabaldu zen epea denda birtualean izena emateko.

Landako Gunean eta Plateruenean ikuskizun eta solasaldiak egingo dira azoka egunetan

Abenduaren 4tik 8ra egingo da aurtengo Durangoko Azoka. Hasierean aurreikusitakoa baino egun bat gehiago iraungo du. Ikasle Goizari eustea erabaki du Gerediagak; horrela, ikasleek hainbat jardueraz gozatzeko aukera izango dute birtualki.

Ane Pikaza kartelaren egilea

Egueneko goizeko prentsaurrekoa aurtengo kartela aurkezteko ere baliatu zuen Gerediaga elkarteak. Ane Pikaza artista bilbotarrak egin du 55. edizio honetako irudia; testuinguru gris batean, kolorez betetako bihotz bat irudikatu du 'Taupada! leloari jarraituz. "Kultura mugimenduan dagoen zerbait dela azaleratu gura nuen, egoerarik latzenetan ere kolore biziz loratzen dena", azaldu du ilustratzaile bilbotarrak.

Gaur hasiko da Mangamore topagunearen aurtengo edizioa

Pandemia egoerara egokituta, hainbat ekitaldi eskainiko dituzte egitarauan, horietariko batzuk Internetetik

MANGAMORE • A.M.

Mangamore jaialdiak hamalau garren edizioa du aurtengoa. Japoniako kultura Zornotzara dakarren jaialdiak osasun krisialdira egokitu behar izan du aurtengo edizioa eskaintzeko. Ohiko datetan egingo dute topagunea, baina ekitaldi gutxiago egingo dira eta guztiak ez dira aurrez aurrekoak izango. Aurtengoa, Mangamorek hogeikitalditik gora eskainiko ditu eta erdiak baino gehiago Internetetik eskainiko dituzte. Hain zuzen ere, horixe izango da aurtengo nobedade nagusia, sarean

eskainiko diren berbaldi eta lehiaketak. Dragoi Bola Kahoot!, Fornite, Coslay, FIFA eta League of Legends lehiaketak egingo dituzte digitalean. Horrez gainera, hitzaldiak ere eskainiko dituzte internetetik. Esaterako, 25 años de Resident Evil: El legado de Shinji Mikami eta Viajar a Japón. Zornotza Aretoan Tengu, La leyenda antzerkia, Capitan Harlock pelikula eta zientzia ikuskizunak egongo dira. Kasu horietan, sarrerak aurretiaz hartu beharko dira aretoaren webgunean. Ekintza guztietan derrigorrezkoa izango da maskara ipinita edukitzea.



Mangamore topagunearen aurreko edizioetako argazki bat.

Gai librean

Homeostasia

Noiz itzuliko gara zuzeneko kontzertuen lehen lerroetan dantza egitera? Noiz utziko dugu gure gorputzen arritmia libre berriz ere? Inoiz bueltatuko ote gara albokoa lepotik heldu eta beste eskua sabaira altxatuta izerdi patsetan «Beste bat» oihukatzeraz? Igurtziaren eta izerdiaren nostalgia. Kolektiboa eta konpainia birdefinitzeko udazkena. Kirrinkaria melodia.

Lasaitasuna inokulatu nahian, hasi da esperimientua. Test azkarren mirakulua. Hiztegi pandemikora gehitu kontzeptu berria: antigenikoa. Erraza, arina eta merkea. Ez horren fidagarria, baina berehalakoa. Fede zientifikoa frogatzekotan dira musika jaialdi eta kontzertu gune sonatu bat aurki. Bueltan da izerdia?

Gurean, berriz, areto asko programazio gabe ditugu oraindik, eta las-

Igurtziaren eta izerdiaren nostalgia. Kolektiboa eta konpainia birdefinitzeko udazkena.

Izerdi hotza sentitzen dugu kopetan, izerdi-lika. Eta erregulatzen hasteko unea da

ter gara kafe antzoki gabe. Dardarka (Durangaldeko) euskalgintza eta kulturgintza. Izerdiz lortutakoaren ebaporazioa. Ba ote da tragedia hau diagnostikatzeko test azkarrik?

Homeostasiak izendatzen du, kanpoko aldaketen aurrean, organismo biziek beren parametro biologikoak konstante mantentzeko duten joera. Bada, termorregulazioak huts egin du hemen. Krak. Izerdi hotza sentitzen dugu kopetan, izerdi-lika. Eta erregulatzen hasteko unea da: ohikora itzultzeko testak ez dira nahikoa. Iragana ez zen horren ederra. Distopia, kolapso eta apokalipsiek ez gaituzte etorkizun hobe batera eramango. Hauze da bizitzea egokitu zaigun garaia, eta orainaldi hau bizitzeko modukoa eginez soilik joango gara etorkizun are bizigarriagoetara. Homeostasia utopikoak imajinatzeko eta praktikatzeko urtaroa da.



Libe Mimenza Castillo
Kazetaria

“Klub bat eramatea berez gatxa bada, COVID-19agaz arazoak pilatu egin zaizkigu”

Iurretako klubak presidente berria du eta 40 urteko historian lehenengoz emakumezkoa da: Nagore Ereño

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Presidentea ez ezik, zuzendaritza osoa ere berria da. Futbolari gazteen guraso talde batek hartu du kluba gidatzeko ardura. Oraingoz, liga hasieretara eta segurtasun protokoloak ahalik eta ondoen zaintze-
ra bideratu dute euren ahalegina.

Zelakoa izan da erreleboa zuzendaritzan?

Aurreko zuzendaritza taldean jende gutxi zegoen eta jende asko behar da gaur egungo egoerari aurre egiteko. Gauzak hobeto egin zitezkeela ere pentsatzen genuen. Horregaitik, Iurretakon eta Gertasport-en dabiltzan umeen guraso batzuek batzea eta gure hautagai-tza aurkeztea erabaki genuen. Ez zen beste hautaigairik aurkeztu eta geuk hartu genuen ardura. Dena dela, baten batek taldera batu gura badu, zabalik dugu atea. Laguntza guztia ondo etorriko da.

Klubaren historian, emakumezko lehenengo presidentea zara.

Hasieran ez nekien datu hori. Klubari laguntzeko onartu nuen kargua. Hainbat hedabidetatik deitu didate eta ez nuen arreta hau guztia espero. Sorpresa izan da.

Zuzendaritza berriaren beste berezitasun bat da presidenteordea zure senarra dela, Francisco Javier Martin. Klubeko arazoak etxera eramaten dira?

Ahalegintzen gara ez eramaten eta bizitzako alderdi biak bereizten, baina beti ez da erraza. Esaterako, seme bi ditugu eta gu futbol-zelaian bagaude dena delakoa egiten, haiek bakarrik daude. Baina, tira, ondo moldatzen gara.

Bizi dugun sasoi hau ez da erosoena klub baten gidaritza hartzeko. Karguan zauden lehenengo hiru hilabeteak zelan joan dira?

Oso gogorrak izan dira. Klub bat eramatea berez gatxa bada, COVID-19agaz arazoak pilatu egin zaizkigu. Segurtasun protokoloak lantzea buruhaustea izan da. Erakunde bakoitzak bere erredua bidali digu eta, azkenean, udalarenari egin diogu kasu, denontzat onena dela uste dugulako.

Izan duzue astirik egunean eguneko buruhausteak alboratu eta epe ertainerako helburuetan pentsatzeko?

Oraingoz ez. Nahikoa lan dugu gaur egungo egoera kudeatzeko. Baina aurrera begira, sasoi batean desagertutako erregional mailako taldea berreskuratu gura dugu. Orain, talde nagusian tokirik ez badago, gazteek beste norabait joan behar dute. Hori aldatu gura dugu. Talde bigaz askoz ere aukera zabala-
goa egongo litzakete.

Iurretakok emakumeen taldea izan zuen sasoi batean, baina hura ere desagertu zen. Badago zuen planen artean talde hori berreskuratzea?

Berba egin izan dugu aukera horren inguruan, baina oso gatxa da. Lehenengo eta behin, jokalaria gazteak lortu behar dira eta gero epe luzera begirako konpromisoa lortu. Formula egoki bat diseinatu behar da.

"Aurrera begira, sasoi batean desagertutako erregional mailako taldea berreskuratu gura dugu"



Nagore Ereño
Gorrotxategi
Iurretako klubeko
presidentea
Zornotza | 1975

29 urtera arte futbol jokalaria izan zen eta Iurretako eta Zornotzako Zorrontzako taldeetan jokatu zuen, besteak beste.

Zelan dago kluba ekonomikoki?

Oraingoz nahiko ondo, baina argi dago dirua behar dela gauzak egiteko.

Bazkideek ezingo dute partidurik ikusi zuzenean. Izan duzue bazarrik?

Oraingoz ez, eta, begira, joan zen astean, kalean nenbilela, pertsona batek esan zidan bazkide egin gura zuela eta horretarako zer egin behar zuen galdetu zidan. Pozgarria izan zen.

Futbol-zelaiko taberna zabaldu ahal-ko duzue?

Ez, aurrean ez dugu diru iturri hori izango. Horren falta igarriko dugu. Zuzendaritzako kide bi inguruko

enpresetara joan gara babesle bila. Deneriko erantzunak jaso ditugu eta oso ondo tratatu gaituzte beti, baina... enpresentzat ere ez da erraza gaur egungo egoera, eta ulertzen dut.

Gazteagotan futbol jokalaria izan zinen. Zelan gogoratzen duzu sasoi hura?

Iurretakon eta Zornotzako Zorrontzako klubetan jokatu nuen, besteak beste. Gainera, Zorrontzako klubeko sorreran egon nintzen. Hau da, klub hartan emakumeen lehenengo taldearen ondoren sortu zen gizonena. 2002/2003 denboraldian liga txapelketa irabazi eta

"Enpresetara babesle bila joan gara, baina eurentzat ere ez da erraza egungo egoera, eta ulertzen dut"

jaietako pregoia irakurri genuen. Oso urte politak izan ziren. Nire lagunak onenak futbolekin egin ditut eta oraindino badut tratua batzuekin. Nire futbol ibilbideko unerik gogorrena, oster, belauneko lesio bat izan zen. Bueltatzen ahalegindu nintzen, baina ezin izan nuen eta futbola utzi nuen, 29 urtegar.

uxarte
SAGARDA OGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com

**ZABALIK
OSTIRALETAN ETA
ASTEBURUETAN**

**ASTEAN ZEHA
ENKARGUZ**
Gutxienez 15
laguneko taldeentzako

DIBA
KOOPERATIBA

**Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea**

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

Olazar txapelketa eguenean hasiko da, Aimar Morgaetxeberria zornotzarraren estreinaldiagaz

Atzelariak 18 urte egingo ditu aste bi barru eta hasi da afizionatu mailako txapelketarik garrantzitsuenetan muturra sartzen

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Olazar pilota txapelketak datorren eguenean hasiko du aurtengo ibilbidea. Durangaldeak ordezkari bakarria izango du aurtengo: Aimar Morgaetxeberria. Aste bi barru 18 urte egingo dituen zornotzarrak estreinaldia izango du Zaldibarko txapelketan. Apurka, afizionatuetan erreferente diren txapelketetan muturra sartzen dabil Lagun Onak taldeko pilotaria. Iaz, esaterako, Mallabiko Biharko izarrak txapelketan debutatu zuen.

"Hain txapelketa inportanteetara ez dute edonor gonbidatzen eta ilusioz nago", onartu du atzelari gazteak. Sekula ere ez du jokatu bikotekide izango duen Gaizka

"Hain txapelketa inportanteetara ez dute edonor gonbidatzen eta ilusioz nago"

Karregal galdakoztarragaz, baina pozik dago egokitu zaion aurrelariagaz, afizionatuetako "pilotaririk onenetarikoa" dela uste duelako. Bikote hau ez dago irabazteko faboritoen artean, eta, gainera, Morgaetxeberriak bizkarreko lesio



Aimar Morgaetxeberria, iaz irabazi zuen Cafés Baqué txapelketako txapela jantzita.

batetik irten berri du. Oraindino "sentsazioak berreskuratzen eta beldurra kentzen" dabilen arren, txapelketan "lan ona" egin gura du.

Morgaetxeberriak eta Karregalek txapelketako lehenengo partidua jokatu dute hurrengo eguenean. Garcia eta Cuiran izango dituzte aurkari. Lau t'erdian Beñat Etxeita zeanuriztarrak eta

Iker Eiguren azpeitiarrak neurtuko dituzte indarrak.

Aurtengo txapelketan 24 pilotari arituko dira binaka, eta beste 12

Aurten ohi baino pilotari gutxiago gonbidatu dituzte, txapelketaren kudeaketa errazteko

lau t'erdian. Ohi baino 12 pilotari gutxiago dira. Osasun krisiaren ondorioz, txapelketaren kudeaketa eramangarriagoa izan dadin hartu dute erabakia, eta baita data hauek txapelketa asko daudelako ere. Jardunaldiak eguenero jokatu dira, 21:30ean. Finalak abenduaren 31n jokatu dituzte, ohikoa den moduan.

Irazustabarrena-Galdos eta Eslava-Purroy bikoteek aurrera trinketea



Gizonen final-laurdenetako irudia.

PALETA GOMA • J.D.

Kepa Arroitauregiren oroime-nezko txapelketa berria paleta gomako partidua borrokatu bigaz estreinatu zen, joan zen barikuan. Emakumeetan Amaia Irazustabarrena eta Leire Galdos finalerdietara sailkatu ziren Maite Urtasun eta Maider Ardanaz 30-27 menderatuta. Lau pilotariak mailarik onenean aritu ziren. Bigarren final-laurdenak, Pradera-Saez eta Sobrino-Saez bikoteen artekoak, gaur jokatuko dira Tornosolo trinketea, 18:30ean.

Gizonetan Marcelino Eslavak eta Asier Purroyk 30-24 irabazi zuten Mikel Garcaren eta Diego Ardohainen kontra, alternatiba asko izan zituen partiduan. Final erdietako bigarren bikotea gaur erabakiko da, Lozan-Musri eta Zagarzazu-Clua bikoteen arteko partiduan.

Jokaldia

COVID-19aren era

2020a. Beti gogoratuko gara urte honetaz, gure memorian iltzaturik geratuko den sasoi izango da. Pandemiaren urtea, gure bizimodua hankaz gora jarri zuen birusarena. Lehenengo aldiz mundua geratzea ekarri du. Gogoan ditut konfinamenduko egunak, etxe barruan sartuta egon ginenekoak, hausnartzeko nahi adina denboragaz: bizimoduari buruz, osasunari buruz, hartu daitezkeen norabideei buruz...

Munduarekin batera, kirol mundua ere astindu du birusak. Geldirik egon gara. Baina geldirik egon garen garai horretan, geure begiekin ikusi eta geure gorputzekin sentitu ahal izan dugu zein garrantzitsua eta onuragarria den kirola gure bizimoduan; bai arlo fisikoan eta baita psikologikoan ere. Askok kirola-



Eneritz Iturriaga Mazaga
Txirrindularitza

"Geldirik egon garen sasoiaren geure gorputzetan sentitu dugu zein garrantzitsua den kirola gure bizimoduan"

"Segurtasuna zainduz, txirrindularitzak aurrera egin du eta momentuz ez dugu arazorik izan"

ren garrantzia gehiago baloratzen ikasi dutela uste dut. Kendu dietenean ohartu dira falta zitzaizkien inportantziak. Konturatu dira ez dela denborapasarako zerbait bakarrik, baizik osasunari ere eragiten diola eta izerdi apur bat aterata aldatzeko ere hobera egin dezakeela eta bizitzari aurre egiteko pilak kargatzea ekarri dezakeela.

Txirrindularitzara etorrira, harro esan dezaket egoera honek emakumeen eta gizonen txirrindularitza profesionalak parekatzea ekarri duela, behintzat lasterketa kopuruari dagokionez. Momentu zail hauek ez diote generoari erreparatu eta batzuek zein besteek kirolari profesionalak direla lehenetsi dute eta arlo horretatik pozik gaude. Segurtasuna zainduz —astero izan ditugu PCR probak— gure kirolak aurrera egin du eta momentuz ez dugu arazorik izan. Bestelako albisteak izan ditugu inguruotan, kirol nagusia den futboleak. Ez dituzte gauzak hain ondo egin, nire ustez. Hor ikusten da kirol batean eta bestean egindako lana.

Emakumeen txirrindularitzaz harro sentitzen naiz eta haren alde lan egiten jarraituko dut, euren ondoan egongo naiz, emakumeek kirol hau geroago eta duinago egiten jarraitu dezaten.

DURANGALDEI



Arrazolako bide berdea

Bide berdeak eta errekako ur-lasterrek bat egiten dute Atxondon, Errotabarrira bidean. 5 kilometro baino ez daude Apatamonasteriotik Anbotoren magalean amaitzen den "Tope"-raino. Tokiko iragan meatzariaren lekuko dira trenbidea eta gurdiak.

KO TXOKOAK ?



Garaiko San Migel Goiaingeruaren eliza


Berezia da Garaiko herrigunearen antolaketa. Herriko ertz bakoitzean eliza bat dago. San Migel Goiaingeruaren omenezko eliza da horietariko bat. XVI. mendeko eraikina da eta XVIII. mendean hainbat hilobi topatu zituzten bertan.

Hemen eta online



Sartu **anboto.org**-en
menuan **iragarkiak**
atalean eta klikatu bertan.

Beheko logotipo honen gainean klik egin eta
iragarkilaburrak.eus orrialdera eramango zaitu



Zure datuak sartu
eta **erregistratu**
egin behar zara.



IRAGARKIA JARRI

Goian dagoen irudiaren gainean klik egin eta iragarkia idatzi. Sartu gura dituzun datuak eta gorde datu horiek. Agertzeko, herria aukeratzekoan ipini Durangaldeko herri bat.



Aste horretan argitaratuko dira **anboto.org**-en



HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA / NEGOZIOAK
DENERIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA / KIROLA
FAMILIA / ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten doan: partikularrentzat.
Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta ipini zure iragarkia (Agertzeko, herria aukeratzekoan Durangaldeko herri bat ipini).

Paperean, ordainduta: enpresentzat. Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

Botikak

BARIKUA, 9 · 09:00-09:00	SARRIA Sasikoa 17, DURANGO
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	ASTELEHENA 12 · 09:00-09:00
09:00-22:00	UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	09:00-22:00
ZAPATUA, 10 · 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	MARTITZENA, 13 · 09:00-09:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO
09:00-13:30	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	09:00-22:00
SARRIA Sasikoa 17, DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
DE DIEGO Intxaurreondo 22. - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	EGUAZTENA, 14 09:00-09:00
NAVARRO Arteakalea 6 - DURANGO	GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	09:00-22:00
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - ELORRIO	EGUENA, 15 · 09:00-09:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	09:00-22:00
09:00-22:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
DOMEKA, 11 · 09:00-09:00	

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11. DURANGO / Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.**
Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Domekan, urriak 11, **Oier** eta **Aretx** Uribelarreak 7 urte egingo dabez. Zorionak eta rock and roll!



Zorionak, **Zuhaitz**! Urriaren 6an urte bi egin zenduzan! Maite zaitugul!



Zorionak, **Ane**! Urriaren 10ean 9 urte egingo dozuz. Asko maite zaitugul!



The number one! Urte askotarako, osabaren partez!



Zorionak, **Txomin**! Urriaren 11n 7 urte egingo dozuz. Egun ederra izan dezazula. Mosu handi bat etxe-koen partez!

Eguraldia

ZAPATUA 🌡️ 15° / 11° ☀️	ASTELEHENA 🌡️ 13° / 9° ☀️	EGUAZTENA 🌡️ 13° / 9° ☁️
DOMEKA 🌡️ 12° / 10° ☁️	MARTITZENA 🌡️ 12° / 10° ☁️	EGUENA 🌡️ 12° / 9° ☁️



ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658 · SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722

ATXONDO • AITZIBER BASAURI

Ane Bernasek ANBOTOk antolatutako udako argazki lehiaketako epaimahaiaren saria irabazi du Durangaldeko kategorian, 'Oinak lurretik aske, deslai!' argazkiagaz. Ilunabarraren babesean, Udalatxera bidean ateratako irudia da sari-tutakoa. Atxondarrak sorpresagaz hartu du saria.

Zer islatu gura izan duzu 'Oinak lurretik aske, deslai!' argazkian? Zein istorio dago irudi horren atzean?

Laguntasuna. Goizaldean, hiru lagunek egindako ibilaldian ateratakoa da. Lagun on bat da argazkian agertzen dena. Bada, esangura berezia du argazkiak niretzat. Argazkigintza mendiagaz uztartuz, lagun artean gainera, horrek sentiarazten didan askatasuna da argazkiak islatu gura duena.

Une oro argazkiak ateratzen ibiltzen den horietarikoa zara?

“

Konfinamenduko egun bakoitzeko argazki bat dut. Itxialdia hobeto pasatzen lagundu zidan”

—

Bai! (barrez). Apur bat gogaikarria naizela esan dit batek baino gehiagok. Familian edo lagun artean gaudenean gustatzen zait argazkiak ateratzea, momentu horretako oroimena izateko.

Konfinamenduak iraun zuen bitartean, egunero argazki bat ateratzeko erronkari heldu zenion.

Bai! Hasieran 15 eguneko kontua izan behar zuen arren, azkenean 83 egun zenbatu ditugu. Egun bakoitzeko argazki bat dut. Itxialdia eramaten lagundu zidan, egunero betebeharrak hori ipini nion neure buruari. Irudimenari buelta bat emate horrek asko lagundu dit, makina bat momentu harrapatzeko aukera eman dit. Esan behar dut bikotekideak eta biok Arrazolan bete gurela konfinamendua, nire gurasoen etxean. Album bat osatu gura dut, xelebrea izango da hemendik urte batzuetara argazki horiek ikustea.

“Lotsak argazki on bat ateratzea oztopatu dit behin baino gehiagotan”

Familian edo lagun artean bizitako momentuen argazkiak ateratzea du gogoko Bernasek



Ane Bernas Irazabal
ANBOTOk udako argazki lehiaketako irabazlea
Atxondo | 1990

Zein hartu-eman duzu argazkigintzagaz? Zelan sortu zen?

Izeba Tere, batez ere, eta lehengusua argazki-kameragaz ikusi izan ditut beti. Izebak argazkiz betetako makina bat album ditu. Izugarria da. Joera handia izan du argazkiak ateratzeko, eta atentzioa eman dit beti. 7-8 urte nituela, gurasoek kamera oparitu zidaten, izugarria izan zen niretzat. Gogaikarri samarra izango nintzen, eta erosi egin behar! (barrez). Orain mugikorrak ateratzen ditut argazkiak, baina argazki-kamera hartu gura dut.

Zerk erakartzen zaitu gehien argazkiak ateratzeko orduan?

Faktore askok eragiten dute: momentua, pertsonak, paisaiak...

Edozein momentu edo toki izan daiteke ona argazki bat ateratzeko. Hala ere, lotsak argazki on bat ateratzeko aukera oztopatu dit baten

“

Argazki-kamerak ematen dituen aukera guztiak ikasi gura nituzke”

—

baino gehiagotan. Horri aurre egin behar diot. Haurdunaldiari argazkiak ateratzea ere asko gustatzen zait. Sareetan jarraitzen ditut mota

horretako argazkiak.

Jarraituko duzu argazkigintzan?

Bai, badut zer ikasi oraindino, eta asko ikastea espero dut. Gogoz nago. Argazki-kamerak ematen dituen aukera guztiak aprobetxatzen ikasi gura nuke, perspektibagaz eta argiagaz jokatzeko ezinbestekoa da.

Zer behar du argazki on batek?

Argia ondo erabiltzea, oreka topatzea. Horretan ahalegintzen naiz.

Esango zeniguke Durangaldeko txoko egokiren bat argazki bat ateratzeko?

Atxondo ingurua. Horrelako inguru batean, argazkiaren erdia egin da dago. Egunsentia ateratzeko, Udalatxera joan gaitezke; Alluitzera ilunabarra ateratzeko.

Lau-hortza

Markel Sanchez Zelaia
Behargina



Gurea lehen

Hori da ETB1ek irailean hainbat lekutan ipini duen iragarkia: webguneetan, autobus geltokietako paneletan edo eraikin batzuetako fatxadetan. Gurea lehen; gure hizkuntza lehen; gure kultura lehen. Bi modutara ulertu daiteke:

Bat: ETBren lehen aukera euskarazko telebista dela. Eta ez da. Kate bakoitzeko programazioari, saioen kalitateari eta hauetan mugitzen diren aurrekontuei begiratu besterik ez dago.

Edo bi: Euskal ikusleen lehen aukera ETB1 izan beharko litza-tekeela. Hau da, euskal hiztuna bazara eta euskal kultura sustatu gura baduzu ikusi ezazu ETB1.

Euskal Telebistako lehen katea ez dago bere onenetan, urteak dira ikusle-kuotak lurretik dituela. Salbuespen batzuk kenduta, saio gehienek ez dute lortzen jendearen arreta erakartzea, erakargarriak izatea. Badakigu zein zailtasun dituen hizkuntza gutxitu batean emititzeak, baina bidaltzen den mezua ez da onargarria.

Esaten zaigu euskararen alde bagaude ETB1 ikusteko, militatzeko ETB1 ikusten. Berdin da zer botatzen duten gaur, aspergarria bada, duela 10 urteko saio bat bada, mariatxiak badira: zuk ipini ETB1. Horrela adierazi zuen ETBko zuzendariak iaz Gure Kasa saioan: “Jendeak esaten du ETBk zergatik ez du hau egiten? Baina gero beste kate batzuk ikusten egoten dira, lasai-lasai”. Hau da, jendea ez da inplikatzeko ETB1 ikusten, gura-guru ditute beste saio batzuk.

ETB1ek ETB2k baino aurrekontu gehiago behar du: programa hobeak, fikzio (are) gehiago, aukera gehiago. Edo euskara izango da gauza aspergarri hori derrigor ikusi behar dena.



DURANGO KABILDUOSTE

Aurki Durangon eraikinak egingo dira, Kabilduoste zona eskusiboan, San Roke auzoan, erdigunetik eta Ezkurdi plazatik pauso batera.

Montevideo-ko arrakastaren ondoren proiektu berria Durangon,

KABILDUOSTE

Informa zaitez!

946 462 041

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa.

www.sukia.com